

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresa aurrera ateratzeko, elkarte, hornitzaile eta materialaren eskuragarritasuna bermatuko diguten enpresekin elkarlanean arituko gara, hortaz gure enpresak ahalik eta hoberen funtzionatzeko eta bezeroei hoberena eskaintzeko.



Ezagutzen ditugun elkarteetatik bi iruditu zaizkigu garrantzitsuenak, Alde batetik, Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa (GKEF) eta beste aldetik, Real Sociedad Fundazioa dira. Batez ere, horiek emango digute aukera gure enpresaren ikusgarritasunari dagokionez, eta oso lagungarria izango litzateke. Federazio Euskaldun hauekin kirola egin nahi eta desgaitasun fisikoren bat dutenei lagundu ahal izango diegu, bide batez, kirolari hauek hobe sentitu daitezen lagunduz.

Alde batetik, GKEFaren laguntza izango dugu, produktu hau behar duten jokalarien gertutasunarekin. Guk federazioari materiala saltzen diegun bitartean, haiek federazioan dauden klubekin hitz eginez, material hau jokolariengana helduko litzateke, beraiek materiala lortuz eta bide batez haien ingurukoei gure materialari buruzko publizitatea eginez.

Beste aldetik, Real Sociedad Fundazioarekin ere elkarlanean arituko gara. Hauekin ere GKEFrekin bezela funtzionatuko genuke. Guk fundazioarekin kontaktuan jarriko ginateke hauen euren bazkideei materiala emateko.

Horiek iruditu zaizkigu garrantzitsuenak eta ezagunenak, baina denbora aurrera doan bitartean beste elkarte batek gurekin lan egin nahiko balu edo guk berekin, aukerak planteatzeko egongo lirateke.

Gainera, hornitzaile desberdinak ere izango ditugu, kontuan izanda, hornitzaileak aukeratzeko garaian konfiantza transmititzen digutenak izango ditugula. Lehenengo, guk beraiei kalitatezko materiala erosiko diegulako, ondoren guk gure bezeroei eskaini ahal izateko. Horregatik Decathlon Pro haietako bat da kalitatezko materiala dutelako eta asko lagundu ahal digutelako. Ortopedia batzuekin ere egiten dugu lan beraiek materiala dutelako eta baita ere gure produktuaz asko dakitelako eta bide batez gure produktuarekin asko lagundu gaitzakutelako.

Honekin batera, gure finantza baliabideak kontrolatuta izateko, banku batekin kontaktuan ibiliko gara. Gure kasuan, hainbat banku begiratzen egon ondoren, Sabadell bankua aukeratzea erabaki dugu, iruditu zaigulako egokiena dela gure kontuak eramateko.